

## JARRAIBIDEAK

### Ospitalizazioko Unitatea – HEMATOLOGIA

Dei egiteko beharrea bazaude, erabili gelako txirrina

#### GUREAN ZAUDEN BITARTEAN JARRAITU BEHARREKO ARAU OROKORRAK

- Garbiketerako, gelan bertan komuna duzu, eta dutxa unitatean.
- Dei egiteko beharrea bazaude, erabili gelako txirrina, horrela lana errazten baitiguzu; kontrolera ateratzen bazara, baliteke gure lana oztopatzea.
- Geletako komunak pazienteentzat dira. Laguntzaileentzako komunak igogailuak dauden tokian daude.
- Ez ahaztu ospitalean ISILTASUNA beharrezkoa dela.
- Pazienteentzako segurtasuna dela medio, ospitaleratzeko unitateetan ezin dira sartu landare naturalak edota artifizialak (plastiko, kartoi eta abarrezkoak), lurdunak edo lurgabeak.
- 9:00etatik 13:00etara laguntzaileek unitatetik kanpo irten behar izango dute. Beharrezkoa izanez gero, paziente bakoitzeko pertsona bat egon daiteke. Debekatuta dago unitateko korredoreetan geratzea.
- Zerbitzuaren beharrianak direla-eta, gela-aldaketa izan ahal da ingratuta zauden bitartean.

## MEDIKUAREN IKUSTALDIA



Astelehenetik larunbatera, jaiegunetan izan ezik, 10:00etatik 14:00etara, gutxi gorabehera. Bisitan zehar, gelan, medikuak pazienteari eta familiartekoei haren egoeraren berri emango die.

## FAMILIARTEKOENTZAKO INFORMAZIO MEDIKOA



Bisita-aldian egingo da, pazientearen gelan. Edozein unetan familiartekoren batek informazio zehatzagoa nahi badu, erizaintzako kontrolean eska dezake.

### OTORDUAK



9:10ean	Gosaria
13:15ean	Bazkaria
17ean	Merienda
20ean	Afaria

### BISITAK

- 14:00etatik 21:00etara.
- **Pazienteko 2 pertsona, gehienez.**  
Nahi izanez gero, senide bat zurekin 24 orduz egon daiteke

## BESTE GAUZA JAKINGARRI BATZUK



Kerik gabeko erakunde batean zaude. Hemen ezin da tabakorik erre edota zigarro elektronikorik erabili (baita aparkaleku, lorategi eta kaleetan ere).



Ospitalean sartu izanaren **egiaztagiria** behe solairuko harreran emango dizute.



### **TXAGORRITXU OSPITALEKO TELEFONO ZENBAKIA: 945-007000**

8:00etatik 22:00etara, logelan deiak jaso daitezke, telefono honetara deituz: 945000882.

**Kanpora deitzeko, logelatik, telebistako txartelaren bidez ere deitu dezakezu.**



**Telebista-zerbitzua** ez da ospitalearen berezko zerbitzua. Erabiltzeko, txip-txartela eta entzungailuak behar dira; atarian duzu tresna horiek lortzeko makina (dena den, zure entzungailuak ere ekar ditzakezu, nahi izanez gero). Txartelak duen diru-kopurua ez da itzuliko, baina ez dauka iraungintze-datarik, hortaz berriro erabil daiteke. Matxuraren bat gertatu edo behar izanez gero, deitu 1422 edo 636 46 59 37 telefonora.

Telebista - eta telefono-ekipoak sistema berean integratuta daudenez, ezin dira telebistak deskonektatu, telefono-zerbitzua ere automatikoki deskonektatuko litzateke-e.



### **KAFETEGIA Ordutegia: 8:00etatik 22:00etara.**

Kafetegia erdisotoan dago.

Solairu batzuetan kafe eta freskagarri makinak daude, igogailuak dauden hallean, hain zuzen



### **ALTA hartzeko egunean, gela arratseko 15:00ak baino lehen utzi beharko duzu.**

Ospitalean ISILTASUNA beharrezkoa dela gogorazten da.

Altaren egunean komenigarria da gela uztea txosten-medikoa jaso ostean, behar duten pazienteentzat ohea prestatzeko.



**AEEC Arabako Minbiziaren aurkako elkarte espainarrak** erabiltzaile eta senideei arreta psikosozialaren zerbitzua eskaintzen die. Prado k.; 8-4.es. Telefonoa: 945 26 32 97 Ordutegia: 8:00-18:00 astelehenetik ostiralera.

"Gaixoari laguntzeko boluntarioen zerbitzua ospitalean eta etxean". ARABA ESIko Txagorritxu 6.C solairua, Ordutegia: 9:00-14:00 astelehenetik ostiralera. Telefonoa: 945 00 70 00 luz:5202



### **Laguntza erlijiosa eta espiritual:**

- Ospitaleak zerbitzu erlijioso katolikoa du Kapean (1. solairuan). Harrera erlijiosoaren ordutegia: egunero 8:30etik 20:30era. Mezen ordutegia: Igande eta jaiegunetan 11:00etan.
- Beste erlijio batzuetako pazienteek eta senideek laguntza eskatu diezaioke euren arimako maisuari.

**PAZIENTEAREN ZAKO ETA ERABILTZAILEAREN ZAKO ARRETA ZERBITZUA (PEAZ).** Zerbitzu horren beharra izanez gero, Unitateko gainbegiralearen bidez eska dezakezu. **Ordutegia:**- Astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 15:00etara.